HERNIAREN KIRURGIA

Zer da hernia bat?

Hernia afekzio bat da, eta abdomen-paretako akats edo ahuleria batean datza; bertatik, abdomen-barrunbeko edukia ateratzen da.



Zein hernia-mota daude?

Zenbait hernia-mota daude, abdomen-paretan hainbat zulo - edo ahuleria dagoen gune-mota baitaude. Hona hemen herniarik ohikoenak:

- Iztai-hernia: koskorra, abdomen-barrunbeko edukia, iztai-eremutik ateratzen denean (iztaia).
- Zilborreko hernia: koskorra, abdomen-barrunbeko edukia, zilborretik ateratzen denean.
- Hernia epigastrikoa: koskorra abdomeneko erdiko lerrotik ateratzen denean, zilborraren eta bularrezurraren arteko edozein tokitan.
- Ebakiko hernia: koskorra aurretik egindako orbain batetik ateratzen denean. Ebentrazio edo hernia bentral ere deitzen zaio.

Zergatik sortzen da hernia?

Herniak sortzen dira abdomen-paretan ahuleria dagoenean, eta hori dela-eta zulo bat agertzen denean; protrusioa bertatik ateratzen da. Hernia asko esfortzuak egin ostean agertzen dira, eta beste zenbaitetan, pisu gehiegi hartzeagatik sortzen dira. Orobat, jaiotzetikoak ere izan daitezke.

Herniarik ohikoenak iztaikoak dira.

Zein dira hernien zantzuak/sintomak?

Sintomarik ohikoenak ondoeza, erremina edo mina dira, hernia dagoen inguruan, bereziki esfortzu jakin batzuk egitean. Dena den, paziente batzuek ondoeza nabaritzen dute ibiltzean.

Pazienteentzat, deigarriena koskorra da, esfortzua egitean atera edo handitzen dena. Zenbaitetan, hernia kanpoan dago beti.

Nola diagnostikatzen dira herniak?

Gehienetan, abdomena aztertuz, eta oso gutxitan, irudi-probak (ekografia...) erabili behar dira.

Ebakuntza egin behar al da hernia guztien kasuan?

Sintomak eragiten dituzten hernien kasuan bakarrik egin behar da ebakuntza, edota kirurgialariak ebakuntza gomendatzen badu hernia baloratu ondoren.

Nola tratatzen dira herniak?

Hernien tratamendua beti da kirurgikoa. Oro har, sare edo protesi bat jarri behar da.

Zein da pronostikoa edo susperraldia?

Kasu gehienetan, pronostikoa ona da; kirurgialariak informazio hobea emango dizu zure kasuari buruz. Ospitaleratzen zaituzten unitatean, ebakuntzaren ondoko zainketen eta gomendioen berri emango dizute alta hartzean.